

KOMUNIKAZIOAREN ETA INFORMAZIOAREN OINARRIAK

Jose Inazio Basterretxea Polo
Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1997

Erabat beharrezkoa zen liburu bat da hau. Oinarrizkoa, tituluak berak dioenez. Norbaitek ausartu behar zuen honoko liburu hau euskaraz idazten eta hori Jose Inazio Basterretxea irakaslea izan da. Izan ere UPVko Kazetaritza Fakultatea bigarren hamarkadan ederki sartuta dagoen arren, eta euskal adarra ez oso atzerago, ikasketak euskaraz egiten dituzten kazetarigaiek ez dute oraintxe arte euskarazko esku-liburu oinarrizkorik izan. Hemendik aurrera ez da hori esaterik izango. Agian horregatik (eta asignatura horixe delako berea, jakina) hasiera-hasieratik abiatu da egilea: komunikazioa eta informazioa zer diren, zein den horien egitura, zein kontestutan gauzatzen den, komunikatzeko baldintzak eta informatzeko tresnak zeintzuk diren, historian zehar nola garatu diren, esparru horretako teoria arauemaleak zeintzuk izan diren, eta industria erraldoi bihurtu den giza egitate hau nora doan esatetik, alegia. Idatzi, gainera, euskara ezin goxoa-goan idatzi du –bizkaierari zor zaion kutsu zuzena erantsiz–, horretan ere trebezia aparta erakutsiz.

Hori aitortu ondoren, isiltzea nuke onena, aski merezimendu bai baita liburu ortodoxoa, klasikoa eta homologagarria idaztea, are gehiago modu pedagogiko, mailakatu, xamur eta hurbilean idatzirik baldin badago. Liburu hau esku artean hartzen duena ikaslea baldin bada –egileak zuzenean ikasleei zuzendutako liburua

idatzi du–, gauza hauei buruz, ohiz lantzen diren puntu guztiak aurkituko ditu, edota, bederen, jakin beza horixe aurkituko duela, ez duela batere denborarik galduko arduraz irakurri eta mamira jotzen badu –are gutxiago, egileak proposaturiko bibliografian murgiltzen bada–; irakaslea baldin bada, ostera, ezer gutxi hartuko du faltan, saileko, mailako eta ereduko alde guztiak aurkeztu, xehetu eta proposatzen baitira bertan. Halere, ohiz bereizten ez diren aldeak ere bereiztu barik utzi ditu Basterretxeak: agian ortodoxoa delako liburu hau, esku-liburua delako. Ene ustez badira, izan, zenbait aspektu, oinarrizkoak ere badirenak, eta bi aldiz irakurri arren, aurkitu ez ditudanak. Beherago adieraziko ditut.

Merituekin segitzeko, adibidez, etxekoei –euskaldunei, esan nahi baita– erakusten dien errespetua nabarmendu nahi nuke. Izan ere, liburu honetan –lehen aldiz, seguru aski– komunikazioari edota informazioari buruz euskaraz idatzi den guzti-guztia –edo apurra, baina osoa– jasotzen da, beste lekutako egileen aldamenean. Gainera, aipamen horietako batzuetan, aipatu berri ditudan ikertu barik mantendutako aspektu horien berri eman eta seinalatu egiten da, bai. Beraz, ez pentsa esan nahi dudarik Jose Inazio Basterretxea aipatutakoaz ohartzen ez denik: eman dezagun ez dituela oinarrizkotzat jo, espezializatu egitza, hartu dituela; heterodoxoegiak agian azalpen bat da. Ez dakit.

Errealitateaz gain, erreala

Komunikazioa harremana dela esaten da. Adibidez, berba egitea, laztantzea, borrokatzea, begiratzea, ahotsaren tonu diferenteez baliatzea. Eta definizio «ortodoxoena, agian» ematen da: «Igorleak hartzaileari mezu bat bidaltzea, biek ezagutzen duten kodea erabiliz» (25. or.), kodea, noski, zeinutaria delarik. Halaxe definitzen da, sarrien. Baina gauzak hurbilagotik ikusita, kamutsegia ez ote den nago, funtsezko zerbait falta zaiolakoan. Hain zuzen ere, ez baita nahikoa mezu bat bidaltzea, eta horretarako erabiltzen den kodea komuna izatea. Mezuak ulergarria izan behar du eta kode berbera erabili arren, mezua ulergaitza eta ulertezina izan daiteke. Esperientzia batzuk komunikaezinak dira, esperientzia berbera eginda edukitzea exijitzen dute; beraz, alferrik da kode berberaren jabe izatea: ulergaitz, arrotz izaten segituko du mezuak, komunikazio-etena sortu delako. Beraz, oso oker ez banago –aztertzea dela esango nuke, bederen– komunika daitekeen bakarra igorleak eta hartzaileak konpartiturikoa da, ez soilik kode-mailan, esperientzia-mailan ere bai, eta bereziki. Adibideak ez dira falta: gizartean esperientzia berri bati hasiera ematen zaionean, nahiz eta adierazi, nahiz eta esplikatuz, nahiz eta begien aurrean eduki, ez dira ulertzen amankomun bihurtu arte. Hitzak ez dira aski izaten. Ezaguna den beste zerbaitekin alderatu nahi izaten ditugu, eta, halere, ezin... konpartitu eta bizi arte.

Eta hemen «egitatea» eta «errealitatearen» (33-34 or.) diskurtsoarekin lotu nahi nuke. Neure irudiko, hor, ele-

mentu bat falta da: erreala. Hau da, egoera politiko, sozial edo bestelako batean eragin zuzena eta erabakiorra daukana, errealitate desberdinak egituratzera garamatzana, masa-komunikabideen ikuspegi plurala, askotarikoa sortzera daramana –bai eta pluraltasuna dogma dela esan arren, homogeneotasun ikaragarri eta espektakularra lortzera–, norberak bere erara ikustera, interpretatzera, bizitzera eta kontatzera, hain zuzen ere. Ez naiz egitateez mintzaten ari, baina oso hurbil nabil. Liburuan, egitatea gugandik kanpo gertatzen den zerbait da, oso gaizki ez badut irakurri. Eta horretaz bakoitzak bere “pelikula” harilkatzen du. Badirudike, egitateaz ezin dugula ezer esan, arrotz dugula, hautematea baino ez dagokigula, arbitrarioki errealitatea asmatzea, norberaren neurria. Horrela da, bai, lekuko huts baino ez bagina; baina ez da horrela protagonista bagara, erreala bizi egiten badugu. Honek edozein hautemate, maila berean jartzera darama. Benetako fenomeno “errealak” gertatuko ez bailiran. Laburtzeko, agian egitatea da gertatzen den oro eta bakoitza, baina nik erreala esango nioke, egoera zehatz batean, egoera horren baldintzatzaile orokorra, jarraipenezkoa eta funtsezkoa denari, gure pelikulen, asmakizunen menpe ez dagoenari eta, gainera, bizi izan gabe ulertezin bilakatzen den horri.

Hau ez da berria, ez dut nik asmatzen. Landua dago jadanik. Antton Azkargortak landu du lehen-lehenik, oraindik zoritxarrez argitaratu barik dagoen bere doktore-tesian.¹ Bibliografian aipatzen ez den tesi horretan –argitaratu gabea delako, ziurrenik–, beste oinarrizko kontzeptu bat lantzen

1. Azkargorta-Xamardo (1988), *Editorialea gertakizunaren aurrean: El País eta Euskadi*, [argitaratu gabea], Leioa.

da: egitatea eta gertakizuna ez direla gauza bera; gertakizun guztiak egitate izanik, noski, alderantziz ezin daitekeela gauza bera esan. Funtsezko kontzeptua, hedabideen *dena-dalomismoan* (Oteiza dixit), erlatibismo erabatekoan ez jausteko. Aldi berean egia eta egiantzekotasunera garamatza kontzeptu horrek, Basterretxea, Azkargorta-Xamardoren lana² aipatuz, konturatzen denez. Kontzeptu hauek guztiak berriak dira gure artean, gehiago landu behar dira oraindik.

Beste zenbait ohartxo

Liburuak duen merezimendu osoaren gainera, agian beste ohartxo pare bat. Adibidez, hedabideetako profesionaliek boterea ejerzitatzen dutela, «boterean daudela» esaten denean, estatuaren nagusitasuna nabarmenago ikustea gustatuko litzaidake, “laugarren boterea” delakoa ez baita botere estatuarenetik bereizirik, haren parte baita.

Manipulazioari, desitxuraketari, desinformazioari eta abarri, kapitulu mamitsu osoa eskaini ondoren, harritzen nau ZEN-Plana ez aipatzeak, dokumentu funtsezkoa izan baita Espainiako estatuko kazetariak “firme” jartzeko, aniztasunaren dogma gezu-

rra bihurtzeraino. Ene ustez, gelan derrigor erabili beharreko agiria da hura.

Gezurri buruz, egiten diren kontsiderazio guztien gainera, kazetarien gezurra esan beharrak errearen indarra aitortzen duela esan beharko litzateke. Horretarako, baina, sintomatologia menderatu behar da. Interesa duenarentzat –J.I. Basterretxeak badu– liburu hau idatzi ondoren UEUko *Uztaro*-n argitaratutako beste artikulua bat gomendatuko nuke,³ analisi-metodo koalitatiboaren (sintomatikoa) premia praktikoki erakusten baitu.

Informazio publikoa eta pribatuaren arteko dikotomia ez dago hain garbi, zeren gaur egun publikoak administrazioarena esan nahi du, eta ez dago gauza pribatuagorik administrazioaren interesak baino.

Eta amaitzeko bitxikeria bat, maniatxo bat: hedabideen historia aipatzen denean, egunkariak XIX. mendekoak direla etab., ez legoke gaizki adieraztea euskaldunok ez dugula horrelakorik izan XX. mendea ondo aurreratuta egon arte: *Euskaldunon Egunkaria*, alegia.

Jexuxmari Zalakain

2. Azkargorta-Xamardo (1990), “Egia eta egiantzekotasuna: prentsa Euskadin”, *Uztaro*, 0.

3. J. Agirre Kolektiboa (1997), “Analisi sintomatikoa eta politika nazionala”, *Uztaro*, 23.